



INGURUMEN ADIERAZPENA

Vital Eguna 2022



Argitaratzailea:

Vital Fundazioa
Kordoi Etxea, Aiztogile kalea 24
01001 Vitoria-Gasteiz
[www. fundacionvital.eus](http://www.fundacionvital.eus)
Tel.: 945 776 858

Edukia:

Intergaiak Iniciativas de Desarrollo Sostenible, S.L.k
egindako dokumentua

Esker ona:

Gure eskerrik beroena Egibideko boluntario taldeari
Vital Eguna 2022an parte hartzeagatik

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 14a

AURKIBIDEA



AURKEZPENA 04

ERRONKA GARBIA 09

INGURUMEN-HOBEEKUNTZAK 11

KOMUNIKAZIOA 20

INGURUMEN-INPAKTUA 22

HOBETZEKO ARLOAK 24

*“Arriskatzen ez baduzu, ez
duzu galtzen, baina irabazi
ere ez”*

– Mal fario. (Natos)



AURKEZPENA

Vital Fundazioak urriaren 14an, ostirala, eta 15ean, larunbata, burutu zuen Vital Egunaren aurtengo edizioa. Asteburu horretan, erakundeak Arabako gizartearekin partekatu nahi izan zituen alaitasuna eta dibertsioa, musika protagonista izan zen programa baten eskutik. Musika proposamen handiak izan zituen hitzorduak, baita 'Kale Scape' saio berritzailea, Gaueko Martxa Solidarioa eta Enpresa Lasterketa ere. Horrez gain, lurraldera ere zabaldu zuen ospakizuna eta Laudion nahiz Murgian egin ziren musika proiektuak.

Jon Urresti Vital Fundazioetako presidenteak nabarmendu zuenez, “musika oso proposamen erakargarria izango da aurten Vital Egunean, bereziki pentsatua gazteenentzat eta, garrantzitsuena, guztien eskura izango da. Arabako gazte guztiek doan gozatu ahal izango duten top taldea dakargu Vitoria-Gasteizera”.

Gaueko Martxak eman zion hasiera Vital Egunari, urriaren 14an. Martxa hori klasiko bat da eta publikoak gehien espero duen jardueretako bat. Aurten Armenttiako basora itzuli zen 8 kilometroko ibilbidea egiteko, Estadio Fundazioaren instalazioetan hasi eta amaituta. 600 parte-hartzaile baino gehiagok gozatu zuten gaueko martxa solidarioaz. Oraingoan, parte-hartzaile bakoitzeko, Vital Fundazioak kopuru bat eman zion Elikagaien Arabako Bankuari, eta irteeran ekimen solidario horretan parte hartu nahi izan zutenen dohaintzak jaso ziren.



AURKEZPENA



Hamarkada bi igaro ondoren, azken lau edizioak Vital Egunean integratuta egin ditu eta **Enpresa Lasterketa** ezinbesteko hitzordu bihurtu da herri-lasterketak maite dituztenentzat. Parte hartu zuten artean jarrera osasungarria sustatzea izan zuen helburu edizio honek, kirol espiritua eta lanekoa uztartuz. 5 kilometroko zirkuitua izan zuen eta euren enpresak ordezkatu zituzten bi, hiru edo lau pertsonako taldeek hartu zuten parte.



Vital Egunaren edizio honek, lurraldeko beste udalerri batzuetara egindako bisitan, 'Kantu Kolore' eraman zuen Lau-dio eta Murgiara. 'Kantu Kolore' 2015ean jaio zen taldea da, 20 urte baino gehiagoko esperientzia zuten musikariak elkartetik, eta lehen hezkuntzako haurrei zuzendutako musika-proiektua sustatzen dute. Helburua musikaren bidez ikas dezatela da, eduki didaktiko jakin bat duten abestiak proposatuz. Horrela, haurrek ezagutzak gozatu eta barneratzen dituzte, kantuan nahiz dantzan arituz eta, batez ere, gozatuz.

AURKEZPENA

Bestalde, 'Porta Inferi' 2022ko Vital Eguneko proposamenik berritzaileena izan zen. *Escape room* delakoa gogoko duten pertsonak 'kale escape' berri batez gozatu zuten gure kaleetan zehar. Kondaira batean oinarrituta, abentura 80ko hamarkadan hasi zen, harrigarria bada ere, Vitoria-Gasteizen zegoen infernurako ate bat ireki zenean.

Urriaren 15ean, larunbata, infernuko ateak ixteko, hainbat parte-hartzaile talde Kordoi Etxetik abiatu ziren, hiriko toki zehatzetako eskultura bereziekin zerikusia zuen enigma ebaztera.



AURKEZPENA

Arratsalde musikala DJ Canyn-en eskutik hasi zen, Natos eta Waorren kontzertuaren zain zeuden bitartean gazteek gozatu zituzten erritmo elektronikoei ekinez. Goizeko 12:00etan bazegoen jendea Foruen Plazan eserita, kontzertu nagusiaren zain. DJ Canynek eman zion txanda rap oldarkor, borrokalari eta feministaren erreferente den 'La Furia' taldeari. Hiru disko dituzte argitaratuta eta bere haien errimak musika urbanoaren benetako jaialdi izan ziren.



AURKEZPENA

Vital Egunaren laugarren edizioko plater nagusia Natos eta Waor-en kontzertua izan zen. Youtube eta Spotify euren kanalen artean 1.500 milioi stream baino gehiago ditu, eta Madrilgo bikote hau Estatuko rap talde garrantzitsuenetako bat da gaur egun. Penintsulako ia jaialdi handi guztietan jo dute, baina Latinoamerikan, Ingalaterran eta AEBn ere arrakasta izan dute.

Natos eta Waor urriaren 15ean, larunbata, Foruen plazan izan ziren, eta bere ibilbideko arrakastez eta Luna Llena euren azken diskoko kantuez goatzeko doako kontzertua eman zuten.

Kontzertua arrakastatsua izan zen, Espainiako toki guztietatik etorritako 10.000 lagun baino gehiago hurbildu ziren kontzertuaz goatzera, eta irudi ikusgarria eratu zen Foruen Plazan.



ERRONKA GARBIA



Ingurumenerako Nazio Batuen Programaren arabera, ekitaldi jasangarria da ingurumenaren gaineko balizko eragin negatiboak minimizatuz eta erakunde antolatzaileen tzentrat eta inplikaturako eragileentzat ondare positiboa utziz diseinatu, antolatu eta gauzatu dena.

Ekitaldi horiek diseinuan eta antolaketan ingurumen-neurriak txertatzen dituztela ziurtatzeko, Ihobe sozietate publikoak Erronka Garbia metodologia garatu du, ekitaldien ospakizunekin lotutako ingurumenaren gaineko eragin negatiboak minimizatzea ahalbidetzen duen prozedura.

Metodologia hori aplikatzea eta, ondoren, Erronka Garbia — Ingurumen aldetik Jasangarria den Ekitaldia ziurtagiriaren bidez aitortzearen helburua da ekitaldira berraturako pertsonak eta erakunde antolatzaileak kontzientziazatzea ekitaldi jendetsuen garapenari lotutako inpaktu negatiboak arintzeko beharraz.

Erronka Garbia metodologia 6 jarduera-ardatzetan aplikatzen da ekitaldiaren fase bakoitzean gertatzen diren ingurumenaren gaineko eraginak minimizatzeke. Honako hauek dira jarduera-ardatz horiek: Energia, Ura, Mugikortasuna, Erosketak, Hondakinak eta Azpiegiturak

Funtsezkoa da interes-talde guztiak antolatzaileekin lerrokatuta egotea, ekitaldiaren ingurumen-inpaktua murrizteke. Lerrokatze hori ziurtatzeko, komunikazioa eta sentsibilizazioa dira Erronka Garbia ziurtagiriaren tresna garrantzitsuenetako bat.



ERRONKA GARBIA

Vital Fundazioa garapen jasangarriarekin konprometituta dago eta oraingoan ere la-
nean ari da 'Vital Egunaren' edizio honek 'ERRONKA GARBIA – Ingurumen aldetik ja-
sangarria den ekitaldia' ziurtagiria izan dezan. Horrelako ekitaldi batek ingurumenean
izan dezakeen eragin negatiboa minimizatzea da helburua.

Horregatik, ingurumen-aztarna murrizten saiatuz diseinatu dira jarduera guztiak. Era-
bilera bakarreko elementu plastikoak kendu eta hainbat birziklatze-puntu instalatu
dira. Erabili diren azpiegitura eta elementu gehienak berrerabilgarriak izan dira. Gai-
nera, ekitaldi bakoitzera joateko garraio jasangarriak erabiltzea gomendatu da.

Vital Eguna 2022ren ingurumen-helburuak:

- Vital Eguna Erronka Garbia ekitaldia dela jakinarazi parte-hartzea sustatzeko;
- Garraibide jasangarriak sustatzea eta mugikortasuna monitorizatzea;
- Energiaren kontsumo arduratsua sustatzea;
- Erabilera bakarreko plastikoa murriztea;
- Hondakinen kudeaketa selektiboa;
- Uraren erabilera arduratsua sustatzea;
- Azpiegitura jasangarriak sustatzea;
- Ekipo eraginkorrak sartzea.



MUGIKORTASUNA




Ekitaldietan karbono-azterna sortzen duen arrazoi nagusietako bat mugikortasuna da, erregai fosilek gure ingurunean ingurumen-inpaktua sortzen dutelako.

Ingurumen-boluntariora:

2022ko Vital Egunak Egibideren laguntza izan zuen mugikortasuna monitorizatzeko. 400 inkesta baino gehiago bildu ziren, ekitaldiaren karbono-azterna kalkulatzeko. Parte hartzeko jarduera horrek ongi etorria eman zien bertaratutakoei, bi galdera erraz eginez: “Zein garraiobidetan iritsi zara? eta Nondik zatoz?”.


Gaueko Martxa Solidarioa:

Gaueko Martxa Solidarioaren mugikortasunari buruzko inkestetan ikus daitekeenez, parte-hartzaileen % 56 oinez iritsi ziren, % 15 autoz eta beste % 15 partekatutako autoz.



Kordoi Etxea Kale Ska

Pertsona gehienak (% 48) oinez iritsi ziren Kale Skapera, eta azpimarratu behar da % 26 garraio publikoan iritsi zirela (autobusez) eta % 11 bizikletaz. Parte-hartzaileen % 11 partekatutako autoz iritsi zen, eta azkenik, % 4 autoz.



MUGIKORTASUNA




Enpresa Lasterketa :

2022ko Vital Eguneko aurreko ekitaldietan bezala, pertsona gehienak oinez iritsi ziren Enpresa Lasterketa-
ra (% 51). Enpresa Lasterketan automobilaren aldeko joera nabari da, pertsonen % 18 garraiobide horre-
tan iritsi ziren-eta, % 13 autobusez eta % 10 bizikletaz.

GARRAIOBIDEAK

AUTOA AUTO PARTEKATUA MOTORRA AUTOBUSA TRANBIA BIZIKLETA OINEZ




Kontzertuak :

Kontzertuetan jasotako inkestetatik ondorioztatzen da bertaratutako gehienak (% 56) autoz iritsi zirela
Espainiako hainbat lekutatik, hala nola Donostiatik edo Kantabriatik, eta beste % 33 oinez iritsi zirela Vito-
ria-Gasteizetik.

GARRAIOBIDEAK

AUTOA AUTOBUSA TRANBIA OINEZ




MUGIKORTASUNA



Orotarako distantzia (km):

2022ko Vital Egunean nabarmentzekoa da autoz eta partekatutako autoz egindako distantzia, batez ere Enpresa Lasterketan eta kontzertuetan, 12.000 pertsona inguru bertaratu zirela kontuan hartuta. Hala ere, ekitaldira garraiobide jasangarrietan joaten direnen batez bestekoa % 69 da, eta datu horrek erakusten du Vitoria-Gasteizko bertaratuek ohitura arduratsuak dituztela.



Pertsonen % 69

garraio jasangarrien bidez iritsi zen.

ENERGIA



Ekitaldiaren energia-kontsumoak (argiztapena, soinua, etab.) eragina izan zuen ingurunean, eta eragin hori aldatu egin zen ekoizpenaren eta kontsumoaren arabera. 2022ko Vital Egunean arreta berezia jarri zitzaion ingurumen-ardatz horri.

Udal-sarerako konexioak

Foruen Plazak energia-kontsumo handia sortuko zuela aurreikusita, eta, ingurumen-inpaktua saihesteko, lehentasuna eman zitzaion udal-sare energetikora konektatzeari kontzerturako kontratatutako koadro elektriko baten bitartez.

Koadro elektrikoak 32 A-ko hartune bi eta 63 A-ko beste bi zituen. 32 A-ko bat eta 63 A-ko beste bat kontzertuetan erabili ziren, eta beste biak larrialdietako ekipo elektrogenoetara konektatu ziren, azkenean beharrezkoak izan ez baziren ere.

32 A-ko hartunetik 20 A erabili ziren bideo-pantailetarako, eta 63 A-ko hartunea kontzertuaren audiorako eta argiztapenerako (fokuak) izan zen. Horrela, **353 kWh kontsumitu ziren** kontzertuek eta haien presaketek iraun zuten 6 orduetan. Iturri berriztagarrietatik datorren eta jatorrizko berme-ziurtagiria duen udal-sarera konektatu zen energia.



**Energia berriztagarriak 19 kg
Co₂, baino ez zituen sortu.**

ENERGIA



Soinuaren neurketa

Ekitaldian egindako hobekuntza nagusietako bat kutsadura akustikoaren neurketa izan zen. Sonometro bati esker, 2022ko Vital Egunekeo jarduera nagusietan sortutako dezibelak erregistratu ahal izan genituen, Gaueko Martxan neurketak 85 dB-koak izan ziren eta Foruen Plazako kontzertuetan 100 dB-koak, 120 dB baino txikiagoak, hori giro jasanezina izango litzateke-eta.



Este gráfico le puede servir para comparar los áridos valores de las tablas con situaciones reales.

URA

Urari dagokion ardatzak ekitaldiko ur-eskaria murrizteko aplikatutako neurriak iradoki zituen, ekitaldiaren irismenaren fase guztietan, hala nola: bertaratuen kontsumoa, makinaren kontsumoa eta osasun nahiz garbiketa arloetakoak.

Kirol-probetako ur-iturriak

Beste urte batez, ura hornitzeko sarera konektatutako ur-iturriak gehitu ziren, plastikozko botilak saihesteko. Sei (6) tutuko iturriek 0,7 m³ ur inguru kontsumitu zuten Gaueko Martxan eta Enpresa Lasterketan. Vital Fundazioak ere instalazioak eta kamerinoak jarri zizkien kontzertuetako artistei, eta 0,3 m³ inguru kontsumitu ziren.



Sentsibilizazio-mezuak

Web orritik, ekitaldiaren aurretik, bitartean eta ondoren, ingurumen-sentsibilizazioko mezuak jakinarazi ziren hornidura-sareko ur-kontsumoari buruz, kalitate onekoa baita, eta erabilera bakarreko plastikozko botilatxoak aurreztu ziren.

- **Ura: Kalitate oneko ura dugu.** Horregatik, erabil itzazu iturriak eta ekidin ezazu botilako ura. Edozein ontzi berrerabilgarri berriz betetzeko erabil daitezkeen ur-iturriak aurkituko dituzu Vital Egunean.



EROSKETAK

Erosketen ardatzak eragin zuzena izan zuen produktuen erosketan eta zerbitzuen kontratazioan. Funtsezkoa da materiala berrerabiltzea eta ingurumen-ziurtagiriak dituzten hornitzaileak kontratatzea, ekitaldi garbia ziurtatzeko. Vital Eguna antolatzen duen taldeak erabilera bakarreko plastikoa murrizteko politika ezarri zuen, eta erosketak ekitaldiaren beharretara egokitu zituen. Adibide gisa, Vital Egunaren aurtengo edizioan sartu ziren hobekuntza batzuk zerrendatuko dira.

Merchandising:

Plastiko berrerabilgarritzko 650 botilatxo oparitu ziren Enpresa Lasterketan. Hartara, produktuaren bizikloan luzatu zen eta erabilera bakarreko ur-botilak saihestu ziren. Paper-zorroak eta txalekoak banatu ziren mugikortasun-inkestak egiteko eta boluntariotza-taldeari ikusgarritasuna emateko. Ingurumen-boluntarioek beren jarduera amaitu zutenean, materialak itzuli zituzten, etorkizuneko edizioetan berrera-biltzeko.

Azkenik, nabarmentzeko moduko hobekuntza etorri zen, Enpresa Lasterketako irabazleei zurezko garaikur bat eman zitzaion, gure ingurunerako material jasangarriagoa baita.



AZPIEGITURAK

Azpiegitura-ardatzean ekitaldia egiteko erabili diren aldi baterako edo iraunkorrak diren ekipamendu eta azpiegitura guztiak biltzen dira, hala nola egiturak, ekipo elektrogenoak, tresna elektrikoak, altzariak, dekorazioa, argiztapena, soinua, seinaleak eta kartelak, itxitura eta balizak, komunak...

Kontsumo txikiko ekipoak

Enpresa Lasterketan 4.000 W-ko etapa bat erabili zen heren batera, 1333,3 W Andre Maria Zuriaren plaza osoari soinua emateko. Kontzertuetan 4.000 W-ko potentziako lau (4) etapa gehitu ziren, nahiz eta potentzia erabilgarri guztiaren laurden bat (1/4) baino zertxobait gehiago ere kontsumitu zen. Izan ere, egungo ekipo digitalak direla-eta kontsumo elektrikoa oso txikia da. Gainera, kontzerturako erabili ziren foku eta bonbilla guztiak LED izan ziren, eta argiztapenaren kontsumoa murriztu egin zen.

Azpiegitura berrerabilgarria

Stand, karpa, arku, pibote, *banner*, *roll up*, *hesi*, *agertoki*, *aulki* eta *mahai* guztiak Vital Fundazioaren beste ekitaldi batzuetatik berrerabili ziren. Horrela, azpiegitura berria nabarmen murriztu zen eta ez zen ia ezer baztertu.




HONDAKINAK

Hondakinak kudeatzeko plangintza

Aurreko urteetan bezala, kolore bakoitzeko edukiontzi-uharteak jarri ziren eremu bakoitzean estrategikoki. Horretarako, planta-planoak bidali zitzaizkion Vitoria-Gasteizko Udalari, edukiontzi gehigarriak planifikatzeko. Horrela, hainbat koloretako edukiontziak erabiliz, hondakinen sailkapen selektiboa egin ahal izan zen. Ekimen horrek ordena eta garbitasuna ematen ditu hasieratik, eta biltzen diren hondakinak hondakinen udal kudeatzaileak tratatzen ditu.


EDUKIONTZIAK BEREIZTEA GAUEKO MARTXAN HONDAKINAK KUDEATZEKO



FUNDACIÓN **Vital** FUNDAZIOA

InterGaiak

SORTUTAKO HONDAKINAK



Ingurumen-sentsibilizazioko mezuak

Ekitaldiaren aurretik, web-orritik ingurumen-sentsibilizazioko mezuak helarazi zitzaizkien bertaratutako guztiei, hala nola:

- **Hondakinak:** Saihestu ezazu hondakinak sortzea eta erabil itzazu gure jardueretan kokatuko diren zaborrontziak. Gogora ezazu, papera ontzi urdinera, beira berdera, ontziak horira eta hondakin organikoak laranja.



KOMUNIKAZIOA

Erronka Garbia ziurtagiria lortzeak, ekitaldiaren egunean sor zitezkeen inpaktuak murriztea ez ezik, gizartea ingurumenaren garrantziaz sentsibilizatzea ere izan zuen helburu. Hori dela eta, ekitaldiaren antolakuntzak jarraian zehaztuko den komunikazio eta sentsibilizazio kanpaina jarri zuen abian ekitaldiaren aurretik, bitartean eta ondoren.

Komunikazioa prentsa-oharretik:

Prentsa-oharraren bidez jakinarazi zenez, aurreko edizioan bezala, Vital Egunak Erronka Garbia ziurtagiria izango zuela, ingurumenaren aldetik jasangarria den ekitaldia ziurtatzeko.

“Vital Fundazioan garapen jasangarriarekin konprometituta gaude. Keinu txikiak esanguratsuak dira. Horregatik, Vital Egunak ‘Erronka Garbia – Ingurumenaren aldetik Jasangarria den Ekitaldia’ ziurtagiria lor dezan egiten dugu lan. Horrelako ekitaldi bat diseinatzeak ingurunean eragin negatiboa gutxitzea esan nahi du eta ekitaldia atsegina izan dadila antolatzaileentzat nahiz bertaratuentzat”.

Gainera, webgunetik ziurtagiriaren berri eman zitzaien bertaratutakoei, eta zenbait jarraibide aholkatu ziren ekitaldian parte hartzeko orduan jasangarriagoa izateko:



Zer da ingurumenaren ikuspegitik jasangarria den ekitaldia?

Nazio Batuen Ingurumenerako Programaren arabera, ingurumenaren gaineko balizko eragin negatiboak minimizatuz diseinatu, antolatu eta burutu den hura da ekitaldi jasangarria, eta ondare positiboa utziko duena erakunde antolatzaileentzat nahiz parte hartu duten eragileentzat.

- Vital Eguna osatzen duten jarduera guzti-guztiak diseinatu dira oinarri hori aintzat hartuta. Horiek guztiek gure ingurumenerako **ahalik eta eragin txikiena sor dezaten** saiatu gara, ingurumen azterna murrizten lagunduko duten ideiak edo elementuak ezarriz.
- Adibidez, **Enpresen Lasterketa hiri-erdialdera** itzultzen da (Andra Mari Zuriaren enparantza) garraio-sare publikoan barneratuta, eta **Egibide**-ko **boluntario-taldearekin** lankidetzan arituko gara ekitaldiaren karbono-azterna kalkulatzeko.
- Kontzertuen energia-kontsumoa dela-eta, **lehenetsuna eman diegu udal-sarerako konexioei**, jatorrizko berme-ziurtagiria duen **energia berriztagarria** bermatuz.
- **Vital Eguna karbono nuluko ekitaldia** izan nahi du eta hurbileko jarduera berdeak sortuko ditugu karbono-azterna konpentsatzeko.
- Vital Eguna bezalako ekitaldi batek hondakin bolumen handia eragiten du. Horregatik, beharrezko iritzi diegu burutuko diren jardueretan **hainbat birziklatze-puntu instalatzeari**.
- Beste adibide on bat Vital Egunari forma emateko erabiliko diren azpiegitura eta elementuak

KOMUNIKAZIOA

Bestalde, Vital Fundazioaren sare sozialetatik ere sustatu ziren ingurumen-ziurtagiria nahiz boluntarioen parte-hartzea.

Ekitaldiak iraun zuen bitartean:

Ekitaldian zehar, Erronka Garbia ziurtagiriaren erreferentziak ikusi ahal izan genituen hainbat lekutan. Roll up delakoa jarri zen ekitaldi garrantzitsuenetan, hala nola gaueko martxan, Erronka Garbia zer den azaltzeko helburuz.

Bestalde, ziurtagiriaren logotipoa txertatu zen hainbat sustapen-karteletan, eta kontzertuen pantailetan proiektatu zen. Azkenik, mugikortasunari buruzko inkesta egin zuten boluntarioek, karbono-aztarnaren neurketari eta Erronka Garbia ziurtagiriari buruzko azalpen labur bat jasotzeaz gain, zeramatzaten txaleko eta paper-zorro korporatiboetan logotipoa ikus zitekeen.

Ekitaldiaren ondoren:

Ekitaldia amaitu eta beharrezko datu guztiak bildu ondoren, Ingurumen-Adierazpena egin zen, eta ekitaldiak eragindako inpaktu guztiak kontrastatu ziren. Gainera, amaieran, hobetu daitezkeen alderdiak aipatu ziren, ekitaldirako ez ezik, gure egunerokotasunera ere eraman daitezkeenak.



Fundación Vital @Vita... · 7 m ...
Nuestro compromiso medioambiental siempre ha estado presente en Vital Eguna. Un año más será un evento ambientalmente sostenible que contará con la certificación Erronka Garbia. Te invitamos a descubrir cómo lo hacemos: vitaleguna.eus/evento-sosteni...
[@lhobe_Eus](#)



INGURUMEN INPAKTUA


Ekitaldiaren ingurumen-inpaktuaren laburpena

VITAL EGUNA 2022

URRIAREN 14-15



Karbono-aztarna



- MUGIKORTASUNA
- ENERGIA
- URA
- EROSKETAK
- AZPIEGITURAK
- HONDAKINAK

**GUZTIRA
EKITALDIAK**

62.031
kg CO₂ bal.


PERTSONAKO



5
kg CO₂ bal.



Ur-aztarna



- MUGIKORTASUNA
- ENERGIA
- URA
- EROSKETAK
- AZPIEGITURAK
- HONDAKINAK

**GUZTIRA
EKITALDIAK**

298
m³ H₂O


PERTSONAKO



0,022
m³ H₂O



Ingurumen-aztarna



- MUGIKORTASUNA
- ENERGIA
- URA
- EROSKETAK
- AZPIEGITURAK
- HONDAKINAK

**GUZTIRA
EKITALDIAK**

6.310.978
mPt

PERTSONAKO



469
mPt



INGURUMEN INPAKTUA

Karbono-aztarna:

Ekitaldiaren guztizko karbono-isuriak **62.031 kg Co2 baliokide izan ziren, 5 kg Co2 baliokide bertaratu bakoitzeko**. Isurketen **% 93 bertaratutakoen mugikortasunaren ondorioz izan ziren**. Gainera, kontzertuen oihartzunaren ondorioz, Vital Eguneko edizio honetara Espainia osoko partaideak hurbildu ziren, eta horrek karbono-aztarna handitu zuen neurri handi batean.

Ur-eskasiagatik azterna:

Nahiz eta ekitaldiak ur-kontsumo zuzen minimoa izan zuen (%1), zeharkako beste ekintza batzuek eragin handia izan zuten kontsumoaren sorreran.

Ekitaldiak **298 m³ H₂O kontsumitu zuen** guztira. % 74 mugikortasunak eragin zuen, % 24 erosketek, poltsa organikoek, maskarek, txalekoek eta, azkenik, % 1 erabilitako azpiegituraren ondorioz izan zen. Kontuan hartzen badugu ekitaldiak 13.450 parte-hartzaile hartu zituela, ez diogu kopuru handia irizten.

Ingurumen-azterna:

Ekitaldiaren **ingurumen-azterna 6.310.978 mPt-tan kalkulatu zen**. Beste behin ere, mugikortasuna izan zen ingurumen-azternaren eragile nagusia, eta horren % 92 sortu zuen. Magnitudearen arabera, erosketek eragin zuten bigarren inpaktu handiena, % 7, eta, azkenik, azpiegiturek gainerako % 1a.



BAZENEKIEN



Ingurumen-azterna produktu edo zerbitzu batek bere bizi-zikloan sortzen duen ingurumen-inpaktuaren neurria dela?

HOBETZEKO ARLOAK

Ekitaldia antolatzen hasi zenetik, ekitaldiak ingurumenean eragingo zituen inpaktuak ahalik eta gehien murrizten saiatu ziren; erosketak, azpiegiturak, kontsumoak eta abar. Hala ere, ekitaldiak eragindako mugikortasuna karbono-isurketaren % 93 izan zen, Espainia osoko gazteak etorri baitziren kontzertuetara.

Badakigu hiritik kanpoko bisitariak kontrolatzea ezinezkoa dela. Horregatik, garraio jasangarriaren erabilera sustatzen jarraitzea proposatzen dugu, sentsibilizazio-kanpainen bidez, ekitaldira datozenak garraiobide jasangarrietan irits daitezen.

Ekitaldiaren helburu nagusia atmosferara egiten diren karbono-isurketak ahalik eta gehien murriztea da. Gaur egun, ordea, ia ezinezkoa da karbonorik ez isurtzea. Horregatik, herritarrek sentsibilizatzeko helburuz, etorkizunean hainbat zuhaitz- eta landare-espezie landatzeko aukera planteatzen da, ekitaldiek igorritako emisioak konpentsatzeko eta jarduera berdeak sortzeko gai izango direnak. Horrela, herritarrek ingurumenaz kontzientziatuko lirateke, loturak sortuz eta modu positiboan.

Hala ere, ekitaldian zehar bildutako datuak oso pozgarriak dira. Apurka-apurka, kontsumoa murrizten ari da ekitaldien esparru guztietan: mugikortasuna, energia, erosketak... Hondakinen kudeaketari dagokionez, hobekuntza posible bat hornitzailerik pribatuak kontratatzea litzateke, ekitaldi jendetsuen ondoren sortzen diren hondakinak kudeatzeko.

Bildutako datuak positiboak izan arren, ezin dugu ahaztu ingurumena guztion erantzukizuna dela eta hobetzen jarraitu behar dugula karbonoan neutroak diren ekitaldiak lortze aldera.



ANTOLATZAILEA:

Vital

FUNDACIÓN · FUNDAZIOA

LAGUNTZAILEAK:



InterGaiak®

kalitatea eta iraunkortasuna

Egibide



veiss

evento

